



# JUNTAS GENERALES DE ALAVA

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

## SUPLEMENTO

al Boletín Oficial  
del Territorio  
Histórico de Álava

## GEHIGARRIA

Araba Lurralde  
Historikoaren  
Aldizkari Ofiziala

63. zk.

2002ko Ekainaren 5a, asteazkena - Miércoles, 5 de junio de 2002

nº 63

### ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

3.457

Arabako Biltzar Nagusiek, 2002ko maiatzaren 26an egindako Ohiko Bilkuran, ondoko Foru Araua onetsi zuten:

**5/2002 FORU ARAUA, MAIATZAREN 26KOA, ZENBAIT ZERGA XEDAPEN ALDATZEN DITUENA.**

#### ZIOEN ADIERAZPENA

Foru arau honen helburua, Arabako zerga ordenamenduan zenbait aldaketa sartzea da.

Horrela, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauan zenbait agindu aldatu egin dira. Aldaketa batzuk erabat teknikoak dira, baina beste batzuk funtsezkoak.

Funtsezko aldaketen artean honako hauek aipatu behar dira: tarifaren % 2ko deflazioa eta kenkari batzuek izan duten % 2ko igoera. Murriztapenen aldaketen artean, aipatzekoa dugu gizarte aurreikuspen osagarriari egin beharreko ekarpenei dagokiena. Izan ere, lan etekinen edo ekonomia jardueren ehuneko-muga kendu egin da, eta, bestalde, murriztapena aplikatzeko ez da errenta mota horiek lortzea eskatuko. Murriztapen mota horretako zerga tratamenduan bada beste berrikuntza bat, zerga horien zenbatekoen mugari dagokiona. Bereizi beharrekoak dira partaideak, mutualistak edo bazkideak berak egindakoak eta sustatzaileek edo bazkide babesleek egindakoak. Ekarpen mota bakoitzeko, 7.212,15 euroko muga askea jarri da urteko. Elbarriek edo 52 urtetik gorako mutualista, partaide edo bazkideek egindako ekarpenengatik murriztapenen muga ere areagotu egin da. Era berean, murriztapen berri bat sartu da zerga oinarriaren zati arruntean prima finkoko gizarte aurreikuspeneko mutualitate bati ekarpenak egiten dizkieten kirolarientzat. Berrikuntzen artean ere, etxebizitzak alokatzen dituztenei egingo zaizkien murriztapenak aipatu behar dira.

Ondarearen gaineko Zergaren Foru Arauko agindu batzuek ere aldatzen dira. Oro har, aldaketen horiekin ordaindu beharreko kuota inflazioak duen eragina neutralizatu nahi da: tarifa % 2 jaitsiko da, eta zenbait salbuespenen zenbatekoak igo egingo dira. Zerga hori ordaintzera beharrik dauden pertsonak zein diren zehazteko ezarritako zenbatekoak ere ehuneko kopuru bera igoko dira.

4. artikulua Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zergaren Foru Arauko zenbait agindu aldatzen ditu. Aurreko zergetan bezala gainerako kasuetan ere, aldaketen helburua inflazioak kuotaren zehaztapenean duen eragina neutralizatzea da. Horrela, zergaren tarifak % 2 jaisten dira, eta murriztapenak ehuneko berean areagotzen. Berezitasun gisa, esan behar da % 95eko hoberi berria sartu dela zerga oinarrian hileren albo lineako ahaideek (hirugarren mailaraino, maila hori barne) «mortis causa» bereganatzen dutenean, baldin eta enpresa banako batean, negozio profesional batean edo erakunde bateko zenbait partaidetzetan ondorengorik edo adoptaturik ez bada.

### JUNTAS GENERALES DE ALAVA

3.457

Las Juntas Generales de Álava, en Sesión Tradicional celebrada el día 26 de mayo de 2002, aprobaron la siguiente Norma Foral:

**NORMA FORAL 5/2002, DE 26 DE MAYO, DE MODIFICACIÓN DE DIVERSAS DISPOSICIONES TRIBUTARIAS**

#### EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La presente Norma Foral tiene por objeto introducir diversas modificaciones en el ordenamiento tributario del Territorio Histórico de Álava.

Así, se alteran diversos preceptos de la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas. Entre los mismos, algunos pueden considerarse de carácter puramente técnico, mientras que otros tienen un carácter más sustantivo.

De entre las modificaciones sustantivas cabe destacar la deflación de la tarifa en un 2% y el incremento de determinadas deducciones en igual porcentaje. Dentro de las modificaciones de las reducciones merece especial mención la que afecta a las aportaciones a la previsión social complementaria, donde se elimina el límite porcentual referido a los rendimientos de trabajo o de actividades económicas, no exigiéndose, por otra parte, la obtención de esta clase de rentas para la aplicación de la reducción. Otra novedad en el tratamiento fiscal de este tipo de reducción es la que afecta al límite en la cuantía de las mismas, distinguiendo entre las realizadas por el propio partícipe, mutualista o socio, de las realizadas por los promotores o socios protectores. Para cada tipo de aportación se fija el límite independiente de 7.212,15 euros anuales. También se incrementa el límite de las reducciones por las aportaciones realizadas por los mutualistas, partícipes o socios que excedan de 52 años o respecto de los que reúnan la condición de discapacitados. Se introduce, asimismo, una reducción en la parte general de la base imponible para los deportistas profesionales que realicen aportaciones a una mutualidad de previsión social de prima fija. También se incluye como novedad una nueva deducción, que afecta a los arrendadores de viviendas.

También se introducen modificaciones en algunos preceptos de la Norma Foral del Impuesto sobre el Patrimonio. Básicamente, las modificaciones persiguen neutralizar el efecto de la inflación en la determinación de la cuota a pagar, deflactando la tarifa en un 2% e incrementando los importes de determinadas exenciones. También se incrementan, en el mismo porcentaje, los importes fijados para determinar las personas obligadas a declarar por dicho tributo.

El artículo 4 modifica determinados preceptos de la Norma Foral del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones. Al igual que en los anteriores Impuestos, en la mayoría de los casos las modificaciones persiguen neutralizar el efecto de la inflación en la determinación de la cuota. Así, se deflactan las tarifas del impuesto en un 2% y se incrementan las reducciones en el mismo porcentaje. Como particularidad cabe apuntar la inclusión de una nueva bonificación en la base imponible del 95% en los casos de adquisiciones "mortis causa" por colaterales hasta el tercer grado de la persona fallecida, siempre que no existan descendientes o adoptados, de una empresa individual, de un negocio profesional o de determinadas participaciones en entidades.

Era berean, Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauan ere aldatu dira. Aldaketa garrantzitsuenak ondorengoak dira:

- Zerga oinarria zehazteko metodo gisa zenbatespen objektiboa onartu da, foru arauaren bidez hala onartuz gero.

- Beste aukera hau ere onartu da: subkapitalizazio kasuetan, orokorrak ez diren koefizienteak zerga Administrazioari planteatzeko aukera, hark onartu ahal izateko.

- Aparteko mozkinak berrinbertitzeagatik lortutako zerga mozkinaren araua aldatu egin da. Atzerapen erregimena utzi eta ez integrazteko erregimenera pasako dira, zenbait baldintza betetz gero, ekonomia ustiapenei atxikitako aktibo materialak nahiz immaterialak eskualdatzetik datozen errentak. Gainera, zenbait finantza-aktibo eskualdatzean lortutako errentetarako % 50a ez da integratuko. Horrek esan nahi du enpresa guztiei aplikatuko zaiela, salbuetsitako iogoera mugarik gabe, orain arte izandako berrinbertitzeagatik salbuespenaren mozkinak, hau da, enpresa txiki eta ertain guztiei aplikatuko zaie.

- Zerga oinarri negatiboen konpentsazioan, baldintza berri bat sartu dugu, nahitaez likidatzeko edo autolikidatzeko baldintza.

- Murriztapenaren beste erregulazio egituratuago bat sartu dugu. Murriztapenak ikerketa jardueren eta garapen eta berrikuntza teknologikoen araberako antolatuko dira. Erregulazio horretan sartutako berrikuntzen artean, ibilgetu material eta immaterialak (higiezinak eta lurrak kenduta) egindako inbertsioengatik murriztapenak nabarmendu behar ditugu.

- Kenkari berri bat sartu dugu enpresa txiki eta ertainentzat, energia berriztagarrien iturriak aprobetxatzeko inbertsioak egiteagatik.

- Kenkari bat onartu da enpresentzat, baldin eta enpleguko pensio planak egiten badituzte eta gizarte aurreikuspeneko mutualitateei edo enpresaren gizarte aurreikuspen tresna gisa funtzionatzen duten borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeei kontribuzioak ordaintzeko badizkiete.

- Enpresa txiki edo ertainentzat izendatzeko behar diren eragiketa eta ibilgetuen gehieneko zenbatekoak gehitu egingo dira.

- Baltzuen taldearen erregimen berezia aldatu egin da. Besteak beste, aurrerantzean «zerga finkapenaren erregimena» deituko zaio.

- Diruzkoak ez bestelako ekarpenei dagokienez, bat-egiteen, bereizketen, aktibo-ekarpenen, balio-trukeen eta aktibo eta pasiboen lagapen orokorren erregimen berezia aplikatuko zaie Persona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunak egindako akzio ekarpenei edo gizarte partaidetzi.

- Errenta guztiak, salbuetsiak eta salbuetsi gabeak, aitortzeko betebeharrak onartu dira, erregimen berezian aipatzen diren salbuetsitako zergadunentzat.

- Persona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren bezala, izurriteak edo gaitzak errotik kentzearen azterketa nahitaez hiltzeagatik jasotako kalte ordain publikoak zerga oinarrian ez sartzea onartu da.

Kooperatiben Zerga Erregimenari buruzko Foru Araua ere aldatu da. Kasu honetan, etxebizitzaren kooperatibak bereziki babestutako etxebizitzaren taldean sartu izana eta herri onurako kooperatiben eta gizarte ekimeneko kooperatiben zerga erregimena arautzen duen titulua berria sortu izana aipatu behar dugu. Bestalde, beste aldatutako batzuk ere sartu ditugu, foru arauan bildutako erregulazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Kooperatiben Legeak onartutako azken aldatutakotara egokitu asmoz. Eta gainera, menpeko finantzaketa gastu kengarritzat hartzea ahalbidetzen du.

Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Foru Arauan sartu ditugun aldatutako artetan honako hau aipatuko dugu: zenbait erregistrotan inskribatu ahal diren notariatzeko eskritura eta akten lehen kopien ekintza juridiko dokumentuengatik ordaindu beharreko zerga. Erregistro horiek, azken urte hauetan, berrantolatzen ari dira. Beraz, berrantolamendu prozesu horren ondorioz sortutako erregistro berriak aipatu behar dira.

Zergei buruzko Foru Arau Orokorra ere aldatzen da. Besteak beste, honako arloak aldatzen dira: ordezkariaren bidez jarduteko gaitasuna, jakinarazpenen erregulazioari dagokionez bitarteko elektronikoa, informatikoa edo telematikoa erabiltzea, zerga Administrazioak zerga liburuak erakustea eskatzeko aukera ofiziozko behin-behineko likidazioak erabakitzeak, zordunaren ondasunak, bermean sartu

Igualmente se introducen cambios en la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades. Las modificaciones más destacables son las siguientes:

- Se incluye como método de determinación de la base imponible el de estimación objetiva cuando así se prevea por Norma Foral.

- Se recoge la posibilidad de plantear a la Administración tributaria, para su aprobación, coeficientes distintos del general para los supuestos de subcapitalización.

- Se modifica la regulación del beneficio fiscal por la reinversión de beneficios extraordinarios, pasando del diferimiento a la no integración, siempre que se reúnan determinados requisitos, de las rentas procedentes de la transmisión de activos materiales o inmateriales afectos a explotaciones económicas y a la no integración del 50% para las rentas procedentes de la transmisión de determinados activos financieros. Esto supone la aplicación, a todas las empresas, sin límite de incremento exento, del beneficio de la exención por reinversión existente hasta ahora, en otros términos, para las pequeñas y medianas empresas.

- En la compensación de bases imponibles negativas se introduce el requisito de su necesaria liquidación o autoliquidación.

- Se incluye una regulación más estructurada de la deducción por actividades de investigación y desarrollo e innovación tecnológica. Entre las novedades introducidas en dicha regulación cabe resaltar la inclusión de la deducción por inversiones realizadas en elementos de inmovilizado material e inmaterial, excluidos los inmuebles y los terrenos.

- Se incluye una nueva deducción para las pequeñas y medianas empresas por las inversiones realizadas con destino al aprovechamiento de fuentes de energía renovables.

- Se establece una deducción por las contribuciones empresariales a planes de pensiones de empleo, a mutualidades de previsión social o a entidades de previsión social voluntaria que actúen como instrumento de previsión social empresarial.

- Se incrementan los importes máximos de volumen de operaciones y del inmovilizado neto que permiten la calificación de pequeña o mediana empresa.

- Se modifica el régimen especial de grupos de sociedades, que, entre otros cambios, pasa a denominarse "régimen de consolidación fiscal".

- En el caso de las aportaciones no dinerarias, se extiende la aplicación del régimen especial de fusiones, escisiones, aportaciones de activos, canje de valores y cesiones globales del activo y del pasivo, a las aportaciones de acciones o participaciones sociales realizadas por los contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

- Se establece la obligación de declarar la totalidad de las rentas, exentas y no exentas, en el caso de los sujetos pasivos exentos a que se refiere el correspondiente régimen especial.

- Al igual que en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, se establece la no integración en la base imponible de las indemnizaciones públicas percibidas como consecuencia del sacrificio obligatorio de la cabaña ganadera, en el marco de actuaciones destinadas a la erradicación de epidemias o enfermedades.

También se modifica la Norma Foral sobre Régimen Fiscal de las Cooperativas. En este caso cabe resaltar la inclusión de las cooperativas de vivienda dentro de las especialmente protegidas y la creación de un nuevo Título que recoge el régimen fiscal de las cooperativas de utilidad pública y las cooperativas de iniciativa social. Por otra parte, se introducen modificaciones que tienen como finalidad el ajuste de la regulación contenida en la Norma Foral a las últimas modificaciones de la Ley de Cooperativas de Euskadi, permitiendo, además, la consideración como gasto deducible de la financiación subordinada.

Entre los cambios introducidos en la Norma Foral del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, mencionaremos el que se refiere a la tributación por actos jurídicos documentados de las primeras copias de escrituras y actas notariales inscribibles en determinados registros; registros que en los últimos años están siendo objeto de reorganización, por lo que procede hacer referencia a los nuevos registros surgidos como consecuencia de dicho proceso de reorganización.

La Norma Foral General Tributaria se altera en lo referido a la capacidad de obrar por medio de representante, a la regulación de las notificaciones mediante empleo de medios electrónicos, informáticos o telemáticos, a la posibilidad de exigir por la Administración tributaria la exhibición de los libros fiscales en el caso de comprobaciones para dictar liquidaciones provisionales de oficio, a la eje-

gabeak, alde zurretik bahitzea zerga zorrak ordaintzeko eta zerga datuak entregatzea estatistikarako.

## I. KAPITULUA

### ARABAKO ZERGEI BURUZKO FORU ARAU OROKORRA

#### 1. artikulua.- 1981eko maiatzaren 31ko Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren aldaketa

1981eko maiatzaren 31ko Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean, aldaketa hauek egin ditugu:

**Bat.** 43. artikuluko 2. idatz zatia aldatu egin dugu eta honela gelditu da idatzita:

«2. Errekurtsoak eta erreklamazioak jartzeko, horiei eta eskubideei uko egiteko, zergadunaren izenean betebeharrak bere gain hartu edo onartzeko eta diru itzultzeak eta ordaintzak eskatzeko, ordezkariak akreditatu beharko da. Horren konstantzia fidagarria utzi behar da zuzenbidean baliozko den edozein baliabideren bidez edo Administrazio organo aginpidedunarengana agertuta. Izapide hutsak diren egintzei dagokienez, ordezkapena onartuta dagoela iritziko zaio.

Foru Arauko III. tituluan araututako prozeduretan zergadunaren sinadura behar bada, ordezkariak aurreko paragrafoan aipatu ditugun baliabideren batez egiaztatzea behar da. Ondorio horietarako, baliozkoak dira zerga Administrazioak onartutako agiri normalizatuak.»

**Bi.** Paragrafo berri bat erantsi diogu 102. artikuluko 3. idatz zatia-ri, ondorengo edukia duena:

«Zerga Administrazioak bitarteko elektronikoa, informatikoa eta telematikoen bidezko jakinarazpenak egiteko baldintzak ezarriko ditu, jakinarazpenoi buruzko arautegiari jarraituz.»

**Hiru.** Idatz zati berri bat (7. idatz zatia) erantsi diogu 102. artikuluari, ondorengo edukia duena:

«7. Jakinarazpena bitarteko telematikoen bidez gauzatu ahal izateko, interesatuak alde zurretik komunikabide hori hautatu beharko du lehentasunekotzat, edo komunikabide hori erabiltzeko berariazko baimena eman beharko du. Eta gainera, dagokion helbide elektronikoa identifikatu behar du eta helbide horrek legezko agindutako baldintzak bete beharko ditu. Horrelakoetan, helbide elektronikoa edukira sartzen den une beretik, jakinarazpena gauzatu joko da legezko ondorio guztietarako. Helbide elektronikoa jakinarazpena jaso dela jakin dakigunean baina handik hamar egunera, interesatuak oraindik edukia ireki ez badu, jakinarazpena atzera bota duela ulertuko da. eta artikuluko 5. idatz zatian onartutako ondorioak izango dituela, ofizioz edo hartzaileak eskatuta, edukia jasotzea teknikoki ezinezkoa dela frogatzen denean izan ezik.»

**Lau.** Letra berria erantsi diogu (i letra) 110. artikuluko 1. idatz zatia-ri, ondorengo testu hau duela:

i) Estatistika arloan eskumena duten Administrazio publikoek datuak estatistika helburuekin erabiltzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistika Legeak (apirilaren 23ko 4/1986 Legea) ematen dizkion eginkizunak betetzeko. Informazio eskaerak estatistika lanaren helburu zehatzak egiaztatzea beharko ditu, horretarako zerga datuak lagatzea eskatzen denean. Edonola ere, datu horiek datu gehigarrien txostenak egiteko baino ez dira erabiliko eta banakoak ezin ditu gorde beretzat.»

**Bost.** Honela gelditu da idatzita 119 bis artikulua:

«119 bis artikulua:

1. Zerga Administrazioak behin-behineko likidazioak ofizioz eman ditzake, zerga aitortpenetan adierazitako datuetan eta aitortpenarekin batera aurkeztutako egiaztagirietan edo horretarako berariaz eskatutako egiaztagirietan oinarrituta.

Era berean, behin-behineko likidazioak ere eman ditzake ofizioz, baldin eta eskura dituen frogak agirian uzten badute zerga oinarria gauzatu dela edo badirela aitortu ez dituen elementuak edota aitortutako zerga zorraren zenbatekoa aldatuko duten elementuak daukela.

Era berean, Administrazioak behin-behineko likidazioak eman- go ditu ofizioz, baldin eta, zerga itzultzeak egitean, zerga Administrazioak itzulitako zenbatekoa eta zergadunak eskatutakoa bat ez badatoz, betiere lehen paragrafoan onartutako baldintzak gertatzen badira edo idatz zati honetako bigarren paragrafoan aipatzen diren frogak eskura baditu.

cución previa del embargo de bienes del deudor distintos a los garantizados, para el pago de deudas tributarias y a la entrega de datos tributarios para fines estadísticos.

## CAPÍTULO I

### NORMA FORAL GENERAL TRIBUTARIA DE ÁLAVA

#### Artículo 1.- Modificación de la Norma Foral General Tributaria de Álava, de 31 de mayo de 1981

Se introducen las siguientes modificaciones en la Norma Foral General Tributaria de Álava de 31 de mayo de 1981:

**Uno.** Se modifica el apartado 2 del artículo 43, quedando redactado en los siguientes términos:

“2. Para interponer recursos, reclamaciones, desistir de ellas, renunciar a derechos, asumir o reconocer obligaciones en nombre del sujeto pasivo y solicitar devoluciones o reembolsos, deberá acreditarse la representación por cualquier medio válido en derecho que deje constancia fidedigna o mediante comparecencia ante el órgano administrativo competente. Para los actos de mero trámite se presumirá concedida la representación.

Cuando en los procedimientos regulados en el Título III de esta Norma Foral sea necesaria la firma del sujeto pasivo, la representación deberá acreditarse por alguno de los medios a los que se refiere el párrafo anterior, siendo válidos, a estos efectos, los documentos normalizados que apruebe la Administración tributaria.”

**Dos.** Se adiciona un párrafo al apartado 3 del artículo 102, con el siguiente contenido:

“La Administración tributaria establecerá los requisitos para la práctica de las notificaciones mediante el empleo y utilización de medios electrónicos, informáticos y telemáticos, de conformidad con la normativa reguladora de dichas notificaciones.”

**Tres.** Se adiciona un apartado 7 al artículo 102, con el siguiente contenido:

“7. Para que la notificación se practique utilizando medios telemáticos se requerirá que el interesado haya señalado dicho medio como preferente o haya consentido expresamente su utilización, identificando, además, la dirección electrónica correspondiente, que deberá cumplir con los requisitos reglamentariamente establecidos. En estos casos, la notificación se entenderá practicada a todos los efectos legales en el momento en que se produzca el acceso a su contenido en la dirección electrónica. Cuando, existiendo constancia de la recepción de la notificación en la dirección electrónica, transcurrieran diez días naturales sin que se acceda a su contenido, se entenderá que la notificación ha sido rechazada con los efectos previstos en el apartado 5 de este artículo, salvo que de oficio o a instancia del destinatario se pruebe la imposibilidad técnica o material del acceso.”

**Cuatro.** Se añade una nueva letra, la i), al apartado 1 del artículo 110, que tendrá la siguiente redacción:

i) La utilización de datos con fines estadísticos por parte de las Administraciones Públicas competentes en materia estadística para el cumplimiento de las funciones que les atribuye la Ley 4/1986, de 23 de abril, de Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi. La solicitud de información deberá justificar las finalidades concretas del trabajo estadístico para el que se requiere la cesión de los datos tributarios. Estos datos serán utilizados, en todo caso, para la elaboración de informes de datos agregados y no podrán ser almacenados de forma individualizada.”

**Cinco.** El artículo 119 bis quedará redactado de la siguiente forma:

“Artículo 119 bis

1. La Administración Tributaria podrá dictar liquidaciones provisionales de oficio de acuerdo con los datos consignados en las declaraciones tributarias y los justificantes de los mismos presentados con la declaración o requeridos al efecto.

De igual manera podrá dictar liquidaciones provisionales de oficio cuando los elementos de prueba que obren en su poder pongan de manifiesto la realización del hecho imponible, la existencia de elementos del mismo que no hayan sido declarados o la existencia de elementos determinantes de la cuantía de la deuda tributaria distintos a los declarados.

Asimismo, se dictarán liquidaciones provisionales de oficio cuando, con ocasión de la práctica de devoluciones tributarias, el importe de la devolución efectuada por la Administración Tributaria no coincida con el solicitado por el sujeto pasivo, siempre que concurren las circunstancias previstas en el párrafo primero o se disponga de los elementos de prueba a que se refiere el párrafo segundo de este apartado.

2. Likidazio horiek gauzatzeko, zerga Administrazioak behar diren egiaztapen laburrak egin ditzake, baina ezingo du enpresaren edo profesionalen jardueren kontabilitateko agiririk aztertu.

Aurreko paragrafoan esandakoa gorabehera, zergadunak, zerga Administrazioak hala eskatuz gero, zerga arauak agindutako erregistroak eta agiriak aurkeztu beharko ditu, zerga Administrazioak zergadunak aitortutako datuak eta aipatutako erregistro eta agiriak datuak bat datozen egiazta ditzan.»

**Sei.** Bigarren idatz zati bat erantsi diogu 126. artikuluari, ondorengo edukia duena:

«Dena den, zerga Administrazioak, bermea gauzatu aurretik, beste ondasun edo eskubide batzuk bahitzea eta besterentzea hauta dezake, baldin eta bermea ez bada bermatutako zorraren parekoa edo zorra ordaintzera behartuta dagoenak, aldez aurretik nahiko ondatsun jarrita, hala eskatzen badu. Horrelakoetan, jarritako bermea baliorik gabe geldituko da bahituek aseguratutako zatian.»

**Zazpi.** 128. artikuluko 3. idatz zatia aldatu egin dugu eta hone-lagelditu da idatzita:

«3. Bahitutako kontuan soldatako edo pentsioak kobratu ohi badi-ra, Prozedura Zibileko Legeko (urtarrilaren 7ko 1/2000 Legea) 606. eta 607. artikuluetan aipatzen diren mugak errespetatu beharko dira. Kontu horretako soldataren edo pentsioaren zenbatekoa zehazteko, kontu horretan kontzeptu horrengatik egindako azken sarrera hartuko da kontuan.»

**Zortzi.** Beste xedapen gehigarri bat gehitzen da, bigarren, eduki hau duena:

«Bigarrena. Informazioa bitarteko telematikoen bidez ematea

Interesatuak aldez aurretik baimenduta eta foru dekretu bidez onartutako baldintza eta bermeekin, Arabako Foru Aldundiak Administrazio publikoetara zuzenean eman diezaike euren eginkizunetarako behar duten zerga informazioa. Informazio hori emateko, bitarteko informatiko edo telematikoak erabil ditzake, onartuko duten lan-kidetzara esparruaren baitan. Era berean, foru dekretu horretan informazio horniketa arautu ahal da, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 110.1 artikuluan araututako kasuetan.

Lankidetzara esparru horren bidez, Administrazio publikoek informazio horiek eskuratzen dituzten heinean, interesatuak ez zaie eskatuko Arabako Foru Aldundiak emandako egiaztagiririk banaka aurkeztea, ez eta zerga aitortpenen originalak, kopiak edo egiaztagiririk aurkeztea ere.»

## II. KAPITULUA

### PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA

**2. artikulua.** - Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua (abenduaren 16ko 35/1998 Foru Araua) aldatzea

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauan (abenduaren 16ko 35/1998 Foru Araua) ondorengo aldaketak egin dira, eta aldaketa horiek 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dira indarrean:

**Bat.** 9. artikuluko p) letra aldatu egin dugu eta honela gelditu da idatzita:

«p) Atzerrian egindako lanengatik jasotako etekinak, honako baldintzak beteta:

1. Lan horiek egoitza Espainian ez duten enpresa edo erakundeentzat, edo egoitza atzerrian duen establezimendu iraunkor baten zatitza egitea.

2. Lanak egiten diren lurraldean, izaera bereko edo antzeko izaerako zerga aplikatzea, eta lurralde hori legez paradisua fiskaltzat jotzen diren lurralde edo herrialdeetan ez egotea. Kontrako probarik aurkezten ez den bitartean, lurralde horretan zerga honen antzeko edo bereko zerga aplikatzen dela pentsatu beharko da, baldin eta, nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko, Espainiako Erreinuarekin ituna sinatu badu, eta ituna aplikatzen bazaio eta informazioa trukatzeko klausularen bat jasotzen badu bertan.

Salbuespena gehienez ere urteko 60.101,21 eurokoa izango da. Arauen bidez, zenbateko hori aldatu ahal da.

Atzerriara bidalitako zergadunentzat, salbuespen hau ez da bateragarria izango Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren arautegiaren testu bateratua onartzen duen abenduaren 18ko 111/2001 Foru Dekretuko 6.A.3.b) artikuluan araututako tributazioetik kanpo utzitako soberakinen erregimenarekin, zenbatekoa edozein izanda ere.

2. Para practicar tales liquidaciones la Administración Tributaria podrá efectuar las actuaciones de comprobación abreviada que sean necesarias, sin que en ningún caso se puedan extender al examen de la documentación contable de actividades empresariales o profesionales.

No obstante lo anterior, el sujeto pasivo deberá exhibir, si fuera requerido para ello, los registros y documentos establecidos por las normas tributarias, al objeto de que la Administración Tributaria pueda constatar si los datos declarados coinciden con los que figuran en los registros y documentos de referencia.”

**Seis.** Se adiciona un segundo párrafo al artículo 126, con el siguiente contenido:

“No obstante, la Administración tributaria podrá optar por el embargo y enajenación de otros bienes o derechos con anterioridad a la ejecución de la garantía cuando ésta no sea proporcionada a la deuda garantizada o cuando el obligado lo solicite, señalando bienes suficientes al efecto. En estos casos la garantía prestada quedará sin efecto en la parte asegurada por los embargos.”

**Siete.** Se modifica el apartado 3 del artículo 128, quedando redactado en los siguientes términos:

“3. Cuando en la cuenta afectada por el embargo se efectúe habitualmente el cobro de sueldos, salarios o pensiones, deberán respetarse las limitaciones a que se refieren los artículos 606 y 607 de la Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil, respecto del importe de dicha cuenta correspondiente al sueldo, salario o pensión de que se trate, considerándose como tal el último importe ingresado en dicha cuenta por ese concepto.”

**Ocho.** Se añade una nueva Disposición Adicional, la Segunda, con el siguiente contenido:

“Segunda. Información por medios telemáticos

Prevía autorización de los interesados y en los términos y con las garantías que se establezcan mediante Decreto Foral, la información de carácter tributario que precisen las Administraciones Públicas para el desarrollo de sus funciones podrá ser suministrada a aquéllas directamente por la Diputación Foral de Álava por medios informáticos o telemáticos, en el marco de colaboración que se establezca. Asimismo, en el citado Decreto Foral se podrá regular el suministro de información en los casos previstos en el artículo 110.1 de la Norma Foral General Tributaria.

En la medida en que a través del indicado marco de colaboración las Administraciones Públicas puedan disponer de dichas informaciones no se exigirá a los interesados que aporten individualmente certificaciones expedidas por la Diputación Foral de Álava, ni la presentación, en original, copia o certificación, de sus declaraciones tributarias.”

## CAPÍTULO II

### IMPUESTO SOBRE LA RENTA DE LAS PERSONAS FÍSICAS

**Artículo 2.** - Modificación de la Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas

Con efectos de 1 de enero de 2002 se introducen las siguientes modificaciones en la Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas:

**Uno.** Se modifica la letra p) del artículo 9, quedando redactada en los siguientes términos:

“p) Los rendimientos del trabajo percibidos por trabajos efectivamente realizados en el extranjero, con los siguientes requisitos:

1º. Que dichos trabajos se realicen para una empresa o entidad no residente en España o un establecimiento permanente radicado en el extranjero.

2º. Que en el territorio en el que se realicen los trabajos se aplique un impuesto de naturaleza idéntica o análoga a la de este Impuesto y no se trate de un país o territorio que haya sido calificado reglamentariamente como paraíso fiscal. Se presumirá, salvo prueba en contrario, que en ese territorio se aplica un impuesto de naturaleza idéntica o análoga a la de este Impuesto cuando con el mismo el Reino de España tenga suscrito un convenio para evitar la doble imposición internacional, que sea de aplicación y que contenga cláusula de intercambio de información.

La exención tendrá un límite máximo de 60.101,21 euros anuales. Reglamentariamente podrá modificarse dicho importe.

La presente exención será incompatible, para los contribuyentes destinados en el extranjero, con el régimen de excesos excluidos de tributación previsto en el artículo 6.A.3.b) del Decreto Foral 111/2001, de 18 de diciembre, que aprueba el texto refundido del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas,

Zergadunak, nahi izanez gero, salbuespen horren ordez soberakinen erregimena aplikatzeko eska dezake.»

**Bi.** Honela gelditu da idatzita 9. artikuluko r) letra:

«r) Honako arrazioak direla-eta, agirian gelditzen diren errenta positiboak:

a') Esnea ekoizteari eta mahastiak, udareak, melokotoiak edo nektarinak lantzeari behin betiko uzteagatik edota bananadiak, sagastiak, udareondoak, melokotoiak eta nektarinak errotik ateratzeagatik, Europar nekazaritza politikaren laguntzak jaso izana.

b') Arrantza behin betiko uzteagatik, itsasontzi baten arrantza jarduera behin betiko gelditzeagatik eta, beste herrialde batzuetan baltzu mistoak sortzearen ondorioz, jarduera hori eskualdatzeagatik, europar arrantza politikaren laguntzak jaso izana.

c') Arrantzako itsasontzi bat besterendu izana, baldin eta erosleak, besterendu eta urte bateko epean, itsasontzi hori desegiten badu eta arrantza jarduera uzteagatik Europar Batasunaren laguntza jaso badu.

d') Suteak, uholdeak edo eraisteak direla-eta, ekonomia jardueraren ekitaldian ondare elementuetan izandako kalteak eta hondamena konpontzeko laguntza publikoak jaso izana.

e) Errepideko garraioa uzteagatik laguntzak jasotzea. Laguntza horiek dagokion Administrazio publikoak emango dizkie laguntza horiek emateko onartu zuten arau erregulatuaz ezarritako baldintzak betetzen dituzten garraiolariei.

f') Izurriteak eta gaitzak errotik kentzearen aurrera eramandako ekintzen barruan, azienda nahitaz hiltzeagatik kalte ordain publikoak jaso izana.

Letra horretan xedatutakoak ugalketarako animaliei baino ez die eragingo.

Errenta horiek kalkulatzeko kontuan hartuko dira bai jasotako laguntzen zenbatekoak bai jardueren lotutako elementuetan gertatzen diren ondare galerak, halakorik gertatuz gero. Aurreko c') letraren kasuan, ondare irabaziak ere zenbatuko dira. Laguntza horien zenbatekoa elementu horiek izandako galeren zenbatekoa baino txikiagoa bada, diferentzia negatiboa oinarri zerga orokorrean sartu ahal izango da. Galerarik ez bada, laguntzen zenbatekoa bakarrik salbuetsiko da kargatik.»

**Hiru.** 21. artikuluko 5. idatz zatiaren bigarren paragrafoa aldatu egin dugu eta honela gelditu da idatzita:

«Era berean, foru arau horretako 22. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie, aparteko mozkinak berrinbertitzen diren kasuetan.»

**Lau.** 22. artikuluko 4. idatz zatiko azken paragrafoa aldatu egin dugu eta honela gelditu da idatzita:

«Ondorio guztietarako, azken hori ez dela existitu ulertuko da, baldin eta ondasun edo eskubideen besterentzea eragina izan zuenetik hiru urte igaro baino lehen gauzatu bada eta besterentzean lortutako zenbatekoak berriz inbertitu ez bada, Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauko (uztailaren 5eko 24/1996 Foru Araua) 22. artikuluan onartutako baldintzen arabera.»

**Bost.** Letra berri bat erantsi diogu (e) letra) 41. artikuluko 3. idatz zatiari, ondorengo edukia duena:

«e) Ezkontzako ondasun banaketaren ekonomia erregimena iraungitzean, legeak edo epailearen ebazpenak aginduta, ezkontideen arteko konpentsazioko pentsioagatik ez baina beste arrazoi batengatik esleipenak gertatzen direnean.

Letra horretan jasotzen den kasuak ez du, inolaz ere, esleitutako ondasun edo eskubideen balioak eguneratzea ekarriko.

**Sei.** 55. artikuluko 1. idatz zatia aldatu egin da, eta honela gelditu da idatzita:

«1. Foru arau honetako 30. artikuluan aipatzen diren kapital higiezinaren urteko etekin osoak, ondasun higiezinen katastro balioari % 2 aplikatzearen ondorio dira.

Higiezinaren katastro balioak berrikusi edo aldatu badira eta 1994ko urtarilaren 1etik aurrera indarrean sartu badira, % 0,50 aplikatu behar da, toki ogasunak arautzen dituen arautegiak onartutako prozeduren arabera.

Zergaren sortzapen egunean higiezinaren katastro baliorik ez badute, edota titularrari ez bazaio halakorik jakinarazi, horren ordez

cualquiera que sea su importe. El contribuyente podrá optar por la aplicación del régimen de excesos en sustitución de esta exención.»

**Dos.** La letra r) del artículo 9 quedará redactada de la siguiente forma:

«r) Las rentas positivas que se pongan de manifiesto como consecuencia de:

a') La percepción de ayudas de la política agraria comunitaria por abandono definitivo de la producción lechera o del cultivo del viñedo, de peras, de melocotones o de nectarinas, o por el arranque de plataneras o de plantaciones de manzanos, peras, melocotones y nectarinas.

b') La percepción de ayudas de la política pesquera comunitaria por el abandono definitivo de la actividad pesquera, paralización definitiva de la actividad pesquera de un buque y transmisión para o como consecuencia de la constitución de sociedades mixtas en terceros países.

c') La enajenación de un buque pesquero cuando, en el plazo de un año desde la fecha de enajenación, el adquirente proceda al desguace del mismo y perciba la correspondiente ayuda comunitaria por la paralización de su actividad pesquera.

d') La percepción de ayudas públicas que tengan por objeto reparar la destrucción, por incendio, inundación o hundimiento, de elementos patrimoniales afectos al ejercicio de actividades económicas.

e') La percepción de ayudas al abandono de la actividad de transporte por carretera satisfechas por la Administración Pública competente, a transportistas que cumplan los requisitos establecidos en la normativa reguladora de la concesión de dichas ayudas.

f') La percepción de indemnizaciones públicas, a causa del sacrificio obligatorio de la cabaña ganadera, en el marco de actuaciones destinadas a la erradicación de epidemias o enfermedades.

Lo dispuesto en esta letra sólo afectará a los animales destinados a la reproducción.

Para calcular dichas rentas se tendrá en cuenta tanto el importe de las ayudas percibidas como las pérdidas patrimoniales que, en su caso, se produzcan en los elementos afectos a las actividades. En el supuesto de la letra c') anterior se computarán, asimismo, las ganancias patrimoniales. Cuando el importe de estas ayudas sea inferior al de las pérdidas producidas en los citados elementos, podrá integrarse en la base imponible general la diferencia negativa. Cuando no existan pérdidas, sólo se excluirá de gravamen el importe de las ayudas.»

**Tres.** Se modifica el párrafo segundo del apartado 5 del artículo 21, quedando redactado en los siguientes términos:

«Asimismo, les será de aplicación lo dispuesto en el artículo 22 de la citada Norma Foral, para los supuestos de reinversión de beneficios extraordinarios.»

**Cuatro.** Se modifica el último párrafo del apartado 4 del artículo 22, quedando redactado en los siguientes términos:

«Se entenderá que no ha existido esta última, a todos los efectos, si se llevase a cabo la enajenación de los bienes o derechos antes de transcurridos tres años desde su afectación sin reinvertir el importe de la enajenación en los términos previstos en el artículo 22 de la Norma Foral 24/1996, de 5 de julio, del Impuesto sobre Sociedades.»

**Cinco.** Se adiciona una letra e) al apartado 3 del artículo 41, con el siguiente contenido:

«e) En la extinción del régimen económico matrimonial de separación de bienes, cuando por imposición legal o resolución judicial se produzcan adjudicaciones por causa distinta de la pensión compensatoria entre cónyuges.

El supuesto al que se refiere esta letra no podrá dar lugar, en ningún caso, a las actualizaciones de los valores de los bienes o derechos adjudicados.»

**Seis.** Se modifica el apartado 1 del artículo 55, que quedará redactado como sigue:

«1. Los rendimientos íntegros anuales del capital inmobiliario a que se refiere el artículo 30 de esta Norma Foral serán el resultado de aplicar el 2% al valor catastral de los bienes inmuebles.

En el caso de inmuebles cuyos valores catastrales hayan sido revisados o modificados y hayan entrado en vigor a partir del 1 de enero de 1994, de conformidad con los procedimientos establecidos en la normativa reguladora de las Haciendas Locales, el porcentaje a aplicar será el 0,50%.

Si a la fecha de devengo del Impuesto los inmuebles carecieran de valor catastral o éste no hubiera sido notificado al titular, se toma-

Ondarearen gaineko Zergaren ondorioetarako kalkulatu beharreko balioaren % 50 aplikatuko da.»

**Zazpi.** 62. artikuluko 2. idatz zatiko a) letra aldatu egin dugu eta honela gelditu da idatzita:

«a) Kontratu horiei egindako urteko gehieneko ekarpenek, sustatzaileek eta, hala badagokio, bazkide babesleek egotzitakoek barne, ezingo dituzte hurrengo 3. idatz zatian aipatuko diren zenbatekoak gainditu.»

**Zortzi.** 62. artikuluko 3. eta 4. idatz zatiak aldatu egin ditugu, eta honela gelditu dira idatzita:

«3. Honakoak izango dira murriztapen horien mugak:

a) Mutualistek, partaideek edo bazkideek ezin dute urteko 7.212,15 euro baino gehiago inbertitu gizarte aurreikuspeneko mutualitateetan, pentsio planetan eta borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeetan, gizarte aurreikuspeneko mutualitateen eta enpleguko pentsio planen sustatzaileek edo bazkide babesleek mutualistei, partaideei edo bazkideei egotzitako enpresa kontribuzioak sartu gabe.

Hala ere, mutualistak, partaideak edo bazkideak 52 urtetik gorakoak badira, aurreko muga hori 1.202,02 eurotan gehituko da 52 urtetik igarotzen den urte bakoitzeko eta 65 urte edo gehiago dituzten mutualista, partaide edo bazkideentzat 22.838,46 euroko muga ezarri da.

b) Gizarte aurreikuspeneko mutualitateak eta enpleguko pentsio planak sustatzen dituztenek egindako enpresa ekarpen guztiak edo bazkide babesleek zergadunaren alde egindakoek eta hari egotzitakoek, aurreko a) letran ezarritako zenbatekoak izango dituzte urteko gehieneko mugatzat.

Enpresaburuak gizarte aurreikuspeneko mutualitateei, enpleguko pentsio planei edo borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeetara egindako ekarpenak muga horren baitan sartuta daudela ulertu behar da, baldin eta, aldi berean, horien sustatzaile eta partaide edo mutualista edo bazkide babesle bada.

c) Aurreko a) eta b) letratan ezarritako mugak indibidualki aplikatuko zaizkio familia unitateko mutualista, partaide edo bazkide bakoitzari.

4. Aurreko mugen arabera egindako murriztapenak gorabehera, zergadunak murriztu ahal ditu zerga oinarri orokorrean ezkontidea mutualista, partaide edo bazkide den gizarte aurreikuspeneko mutualitateetan, pentsio planetan eta borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeetan egindako ekarpenak, baldin eta ezkontideak ez badu zerga oinarri orokorrean sartzeko errentarik lortzen edo urtean 7.212,15 euro baino gutxiago lortzen baditu. Urtean, gehienez, 1.803,04 euro murriztu ahal du kontzeptu horienengatik.»

**Bederatzi.** 63. artikulua aldatu dugu, eta honela gelditu da idatzita:

«63. artikulua.- Baterako tributazioko murrizketa

Foru Arauko 90. artikuluan xedatutakoari jarraituz, baterako tributazioa aukeratzu gero, zerga oinarri orokorra 3.510,00 eurotan murriztuko da urte eta aitorten bakoitzeko.

Aurreko paragrafoan aipatutako murriztapena 3.065,00 eurokoa izango da, foru arau honetako 91. artikuluko 2. idatz zatian aipatzen diren familia unitateentzat.»

**Hamar.** 68. artikuluko 1. idatz zatia aldatu egin dugu eta honela gelditu da idatzita:

«1. Likidazio oinarri orokorra eskala honetako tasei kargatuko zaie:

LIKIDAZIO OINARRI OROKORRA KOPURU HONETARAINO EURO	KUOTA OSOA EURO	GAINERAKO OINARRI LIKIDAGARRIA KOPURU HONETARAINO EURO	APLIK. TASA EURO
3.545,00	0,00	3.220,00	17,00
6.765,00	547,40	11.595,00	25,00
18.360,00	3.446,15	13.530,00	30,00
31.890,00	7.505,15	13.530,00	38,00
45.420,00	12.646,55	25.440,00	44,00
70.860,00	23.840,15	Hemendik aurrera	50,00"

**Hamaika.** 71. artikuluko 1. idatz zatia aldatu egin dugu eta honela gelditu da idatzita:

«1. Zergadunarekin bizi den ondorengo bakoitzarengatik honako kenkaria egingo da:

- 400,00 euro urteko, lehenengoarengatik.
- 490,00 euro urteko, bigarrenarengatik.
- 740,00 euro urteko, hirugarrenarengatik.

rá en sustitución del mismo el 50% del valor por el que deban computarse a efectos del Impuesto sobre el Patrimonio.»

**Siete.** Se modifica la letra a) del apartado 2 del artículo 62, quedando redactada de la siguiente forma:

“a) Las aportaciones anuales máximas a tales contratos, incluyendo, en su caso, las que hubiesen sido imputadas por los promotores y socios protectores, no podrán rebasar las cantidades previstas en el apartado 3 siguiente.”

**Ocho.** Se modifican los apartados 3 y 4 del artículo 62, quedando redactados en los siguientes términos:

“3. Los límites de estas reducciones serán los siguientes:

a) El total de las aportaciones anuales máximas a mutualidades de previsión social, a planes de pensiones y a entidades de previsión social voluntaria realizadas por los mutualistas, partícipes o socios no podrá exceder de 7.212,15 euros, sin incluir las contribuciones empresariales que los promotores de mutualidades de previsión social, de planes de pensiones de empleo o socios protectores imputen a los mutualistas, partícipes o socios.

No obstante, en el caso de mutualistas, partícipes o socios mayores de 52 años, el límite anterior se incrementará en 1.202,02 euros adicionales por cada año de edad del mutualista, partícipe o socio que exceda de 52 años, fijándose en 22.838,46 euros para mutualistas, partícipes o socios de 65 años o más.

b) El conjunto de las contribuciones empresariales realizadas por los promotores de mutualidades de previsión social, de planes de pensiones de empleo o las realizadas por los socios protectores a favor del contribuyente e imputadas al mismo, tendrán como límite anual máximo las cuantías establecidas en la letra a) anterior.

Las aportaciones propias que el empresario individual realice a mutualidades de previsión social, a planes de pensiones de empleo o a entidades de previsión social voluntaria de los que a su vez sea promotor y partícipe o mutualista o socio protector y beneficiario se entenderán incluidas dentro de este mismo límite.

c) Los límites establecidos en las letras a) y b) anteriores se aplicarán de forma independiente e individual a cada mutualista, partícipe o socio integrado en la unidad familiar.

4. Con independencia de las reducciones realizadas de acuerdo con los límites anteriores, los contribuyentes cuyo cónyuge no obtenga rentas a integrar en la parte general de la base imponible o las obtenga en cuantía inferior a 7.212,15 euros anuales, podrán reducir en la base imponible general las aportaciones realizadas a mutualidades de previsión social, a planes de pensiones y a entidades de previsión social voluntaria de los que sea mutualista, partícipe o socio dicho cónyuge, con el límite máximo de 1.803,04 euros anuales.”

**Nueve.** Se modifica el artículo 63, quedando redactado en los siguientes términos:

“Artículo 63.- Reducción por tributación conjunta

En los supuestos en que, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 90 de esta Norma Foral se opte por la tributación conjunta, la base imponible general se reducirá en el importe de 3.510,00 euros anuales por declaración.

La reducción señalada en el párrafo anterior será de 3.065,00 euros en el caso de las unidades familiares señaladas en el apartado 2 del artículo 91 de esta Norma Foral.”

**Diez.** Se modifica el apartado 1 del artículo 68, quedando redactado en los siguientes términos:

“1. La base liquidable general será gravada a los tipos que se indican en la siguiente escala:

BASE LIQUIDABLE GENERAL HASTA EUROS	KUOTA INTEGRAL EURO	RESTO BASE LIQUIDABLE HASTA EUROS	TIPO APPLICABLE EUROS
3.545,00	0,00	3.220,00	17,00
6.765,00	547,40	11.595,00	25,00
18.360,00	3.446,15	13.530,00	30,00
31.890,00	7.505,15	13.530,00	38,00
45.420,00	12.646,55	25.440,00	44,00
70.860,00	23.840,15	En adelante	50,00"

**Once.** Se modifica el apartado 1 del artículo 71, quedando redactado en los siguientes términos:

“1. Por cada descendiente que conviva con el contribuyente se practicará la siguiente deducción:

- 400,00 euros anuales por el primero.
- 490,00 euros anuales por el segundo.
- 740,00 euros anuales por el tercero.

d) 920,00 euro urteko, laugarrenarenarengatik eta hurrengo bakoitzarengatik.

Zergadunarekin bizi den hiru urtetik beherako ondorengo bakoitzarengatik, aurreko kenkariaren gain, 216,00 euroko kenkari osagarria egingo da urte bakoitzeko.»

**Hamabi.** 71. artikuluko 4. idatz zatia aldatu egin da, eta honela gelditu da idatzita:

«4. Epaileak aginduta, ondorengoak ekonomikoki nahitaez mantentzera beharturik egonez gero, ondorengoaren mantenua bere gain hartzen duen aitaren edo amaren aitortzearen egingo da kenketa, baldin eta karga hori bietako batek bakarrik hartzen badu bere gain, edo aitaren eta amaren aitortzearen erdi bana egingo da kenketa, baldin eta ondorengoaren mantenua biei badagokie. Idatz zati honetan aipatzen diren kasuei dagokienez, epaile aginpidedunak erabakitakoa onartu beharko da eta mantenu hori eraginkortasunez betetzen dela egiaztatzea beharko da.»

**Hamahiru.** 72. artikuluko 1. idatz zatia aldatu egin dugu eta honela gelditu da idatzita:

«1. Epaileak aginduta, zergadunak seme-alaben janaritarako urtero diru kopuru bat ordaintzen badu, kontzeptu horrengatik ordaindutako zenbatekoen % 15eko kenkaria egiteko eskubidea izango du, betiere muga hauek errespetatuta:

- a) Urteko 128,00 euro lehen seme-alabagatik.
- b) Urteko 160,00 euro bigarren seme-alabagatik.
- c) Urteko 190,00 euro hirugarren seme-alabagatik.
- d) 246,00 euro urteko, laugarren seme-alabarengatik eta hurrengo bakoitzarengatik.»

**Hamalau.** 73. artikuluko 1. idatz zatia aldatu egin dugu eta honela gelditu da idatzita:

«1. Zergadunarekin segidan eta etengabe urte osoan bizi den aurreko edo ondorengo bakoitzeko, 198,00 euroko kenkaria aplikatu daiteke.»

**Hamabost.** 74. artikuluko 1. eta 2. idatz zatiak aldatu egin ditugu, eta honela gelditu dira idatzita:

